



## DURANGOKO IKASTETXEAK

### PARTIDUETAKO JARRAIBIDEAK

#### 1- SARRERA ETA IRTEERAK

- Talde bakoitza partidua hasi baino 30 minutu lehenago sartu ahal izango da ikastetxera, entrenatzaile, delegatu eta guraso laguntzaileekin. Sarreran pilaketak saihestu beharko dira tarteak utziz. Entrenatzaile eta arduradunekin espazioak antolatuko ditugu (partiduko zelaia zehaztu etab...). Aukera dagoen heinean sarrera ate bat eta irteera ate bat zehaztuko dira. Gurasoak partidua hasi baino 5 minutu lehenago sartuko dira.
- Behin partidua amaituta, guraso guztiak ikastetxetik irten beharko dira. Jokalariei laguntzeko, akta jaso etab... entrenatzailea eta 2-3 guraso geratu daitezke, irteera ondo antolatuta egoteko.
- Gel hidroalkoholkoa egongo da sarreretan.

#### 2- PARTIDUAK

- Aulkitxoan dauden jokalariek eta entrenatzaileek musukoa erabili beharko dute. Jokatzen ari diren jokalariek zein epaileek, nahi izanez gero ez dute musukoa erabili beharko.
- Talde bakoitzeko jokalariek, ur botila, gel, musukoa, esku oihala etab... txukun gordeta izan beharko dituzte.
- Delegatuak izango dira ikastetxeetako ordezkariak.

#### 3- ALDAGELAK ETA KOMUNAK

- Komunak erabilgarri egongo dira, beti ere pilaketak saihestuz.
- Aldagelak ezingo dira erabili. Salbuespena: euri egunetan aterpe barik jokatzeko dutenek erabili ahal izango dute. Instalakuntza publikoetan ere ( Arripausueta eta Tabira) berdin jokatu da.

Proposamenak:

1- (Nevers Ikastetxea) Ikastetxe guztiek, partiduetako protokolo bateratu bat izatea gomendagarria dela ikusten dugu. Protokoloa adostu ondoren, ikastetxe guztiek protokolo hori ikastetxe guztietako logoekin (A3) batean beraien instalakuntzetan jartzea sarbide zein joko eremuan proposatzen du, bertaratuko direnek Durangoko ikastetxe guztiek berdin jokatu dugula ezagutzeko/ulertzeko.

